# BERRIGARA

46. zenbakia JARDUN Elkartea 1994, apirilak 22




# Beldurra pantailetara

## Ostegunero, beldurrezko pelikulak Novedadesen





ZU BAKARRIK ZARA NIRE AUTOA.

...NTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.

OPEL CORSA
NIRE AUTOA

OPEL

10º URTEURRENA

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44/45/4
BERGARA (Gipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn:
Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86



# GAZTEENTZAT MODA ETA GEHIGARRIAK

**Zure denda berria Bergaran!!**

**Janden**

**Irizar, 1 Tfnoa: 76 20 03**






# PACK JOVEN

- BAUSCH & LOMB ERABILI ETA BOTATZEKO UKIPEN LENTEAK
- DISOLUZIO BAKUNEKO BI POTE
- LENTEAK ERAMATEKO ESTUTXEA
- ETA Ray-Ban ak OPARITUKO DIZUGU!!

BAUSCH & LOMB
La tecnología más avanzada del mundo en lentes de contacto

BAKARRIK
**17.000 Pta.**

MULTIOPTICAS
J. Larrañaga
ARRASATE - BERGARA
ORDIZIA

BERRIGARA

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
Tfnoa eta faxa: 76 03 97
**Argitaratzailea:**
Jardun Elkartea
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.
☎ 76 08 19
**Zuzendaria:**
Gorka Elorza.
**Erredakzioa:**
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar.
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.
**Publizitatea eta harpidetzak:**
Alex Azkarate eta Gorka Elorza.
☎ 76 03 97
**Kolaboratzaileak:**
Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, Juan Martin Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Miren Goenaga.
**Komikia eta marrazkiak:**
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Alvarez, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.
**Portadako argazkia:**
"Delicatessen" filmeko irudi bat.
**Banaketa:**
Txantxangorri Taldea.
**Tirada:** 3.500 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).
**Copyright:** BERRIGARA
**Lege gordailua:** SS 50/ 91
**ISSN:** 1130-6599
**BERRIGARA**k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E R B E R R I D A ?

# PILAR AZKARATE

## *Bedelkar-eko idazkaria*



**- Astearteko informatikari buruzko hitzaldian ze ondorio atera duzue? Beharrezkoa al da komertzio txikietan?**

- Behar beharrezkoa ez, baina lana errazten du. Zenbat eta jenero dibersifikatuagoa izan, orduan eta beharrezkoagoa da. Ze jenero saltzen duzun gehien kontrolatzeko, salmentak zehatz mehatz jakiteko adibidez oso egokia da. Gainera komertzio bakoitzaren berezitasunen arabera, programa ezberdinak daude.

**- Eta noiz informatizatzeko asmoa?**

- Nik uste dut epe erdi eta luzera izango litzatekeela. Kosto ekonomikoa ez da gehiegizkoa baina, bestalde, formazioa eskatzen du. Dena den, gaurkotze lanetan ari gara eta eskaparatismoa eta salmenta teknikak ere landuko ditugu. Erosleak ere ez dira orain 20 urtekoak eta garai berriei egokitu beharra daukagu, aurrera egiteko ezinbesteko da.

***"Komertzianteok ere garai berriei egokitu beharra daukagu"***

## I T U R R I O N E T I K

## Taun-Taunen azken lanaren aurkezpena maiatzaren 6an

Taun-Taun Bergarako Txotxongilo Taldeak "Makinatu" bere azken lanaren aurkezpena egingo du datorren maiatzaren 6an, gaueko 10etan, Mariaren Lagundiko Aretoan. Taun-Taunekoek maitasunari buruz duten ikuspegia eskeintzen digute oraingoan eta, nobedade gisa, hitzik gabeko lana dugu "Makinatu". Bertan aktoreen manipulazioak eta Xabier Labaienek konposatutako musikak erabateko garrantzia dute. Taun-Taunek lan honen inguruko bideo bat grabatuko du maiatzaren 23an Andoaingo Bideo Eskolan.

## E S A N D U T E

"Posible da oraindik enpresa txikietan lana sortzea, lan munduan pixkanaka sartzea. Nik ez dut langabeziarik ezagutu baina aktitudea ere aldatu beharra dago: ez geratu etxean eta mugitu, lana lortzea posible dela pentsatuz. Heziketa eta prestakuntza profesionala ezinbestekoak dira baina kalera irtetzea ere bai"

**JOSE LUIS GARITANO**
ADEGIko idazkaria
EUSKADI IRRATIA

•

"Geltoki guztietan aurkitu naiz oso gustora. Baina oroitzapen gehien eta asko gustatu zitzaidana Bergarakoa da, lagun onak egin nituelako; batez ere, estazio munduaz gain, beste lanbide batzuetan aritu nintzelako. Besteak beste, RNEn Bergarako kronika egiten nuen, abuztuan egunkari guztietakoa eta Bikuñaren ordezkoak SER irratian"

**CARLOS GONZALEZ**
Bergarako tren geltokiko buru-ohia
ELGOIBARREN ASTEKARIA

•




**EL HOMBRE SIN ROSTRO**
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.



**PARQUE JURASICO**
Igandea: 11.30.



**AKIRA**
Osteguna: 20.00.

## Zinea

▼▼ **Mel Gibson** ezagunak zuzendu eta protagonizatutako filma. Bertan istripu larria jasan eta bere ingurutik alde egiten duen pertsona baten istorioa azaltzen zaigu. Mutiko batekin (**Nick Stahl**) elkartu eta baztertu dien munduari aurre egitea erabakiko dute...

▼▼ **Spielberg**en *"La lista de Schindler"* heltzen den bitartean, bere azken aurreko arrakastarekin gozatzeko aukera. Holocaustoa gogoratu aurretik, dinosaurioak modan jarri zituen. **Laura Dern**, **Sam Elliot** eta **Jeff Goldblum**en eskutik. Hiru *Oscar*.

▼▼ Izen bereko *comic*ean oinarrituta, **Katsuhiro Otomo**k arrakasta haundia lortu zuen marrazki bizidunen filme honekin. Etorkizunean kokatuta, biolentziaz beteriko gizarte bat aurkezten zaigu. Filmearen aurretik kategoriko 3 laburmetrai emango dira.

## Deiak

▼ **Argazkiak.** Josetxo Aranzabalen erakusketa Kultur Etxean igandera arte.

▼ **Mendi irteera.** Igandean, hilak 24, Castrovalnera egun osoko irteera. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Saltsa ikastaroa.** Maiatzaren 2tik 6ra Bergaran. Elgetan, maiatzeko larunbatetan. Izen-ematea Kirol Zerbitzuan.

▼ **Kintadak.** 1958ko kintoen anaiarteko eguna maiatzaren 7an. Izen-ematea Kortazar edo Bionan.

▼ **Argazkiak.** Txakur Leren Lasterketako argazkiak Nahikarin.

▼ **Hitzaldia.** *"Bosnia, ex-Yugoslavia"* Antzuolako Udal Aretoan, asteartean, 8etan.

## Ogia

▼ **Igandea 24:** Ogizun.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 23:** Puy/Español.
▼ **Igandea 24:** Puy/Corcuera.
▼ **Astelehena 25:** Guallar/Irizar.
▼ **Asteartea 26:** Estella/Amezua.
▼ **Asteazkena 27:** Mozos/Ruiz.
▼ **Osteguna 28:** Camacho/Morales.
▼ **Ostirala 29:** Puy/Español.

MEMESA
phanton
IRIMO
ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA
SFK

*Beldurrezko pelikulen zikloa martxan*

# Beeelduuurgaaarria...

*apirilaren 28tik ekainaren 16ra arte ostegunero*

**Datorren astetik** aurrera eta ekainaren 16ra bitartean, Diputazioaren Gaztemaniak! programaren barne, beldurrezko filmeen ziklo bat izango da ostegunero Novedadesen, arratsaldeko 8etan. Donostiako Kultur Patronatoko zine arduraduna den Jose Luis Rebordinosek aipatzen digunez, *"denetik pixka bat ekartzen saiatu gara eta ikusleak jenero ezberdinetako filmak ikusi ahal izango ditu. Horrela, kultozko filma bihurtu den* "Delicatessen", *psycho-killer baten kasua azaltzen digun* "Henry, retrato de un asesino", *Gore estiloaren barruan sailkatu daitekeen* "Braindead" *edota terrore klasikoagoa eta beharbada komertzialagoak diren* "La mitad oscura" *eta* "El sotano del miedo" *filmeak ikusi ahal izango dira".* Horretaz aparte badira, filme ezagunagorik, *"Dracula"* esate baterako.

Ostegunean, aukezpen egunean, Santiago Segura aktore eta zinegilea izango da Novedadesen. Egun horretan emango den "Akira" marrazki bizidunen filmearen aurretik, Santiago Segura beraren *"Evilio"* eta *"Perturbado"* eta Alex de la Iglesiaren *"Mirindas asesinas"*. Santiago Segurak laburmetrai onenari zegokion Goya saria eskuratu zuen *"Perturbado"*rekin eta Bergaran gutxitan ikusi ahal izan den bertsio osoa emango da.



"El sótano del miedo" filmeak zikloari amaiera emango dio.

Jose Luis Rebordinosek ez du uste beldurrezko jeneroa minoritarioa denik. *"Jarraitzaile ugari ditu. Donostian ere, urrian, Beldurrezko Aste bat antolatzen dugu eta zine-areto ezberdinak jendez gainezka egoten dira. 7.000 pertsona inguruk jarraitzen dute zikloa. Egia da batipat jende gaztea izaten dela eta alde horretatik ez dakit Bergaran zer nolako erantzuna izango duen. Baina ziur egon jendeak ondo pasatuko duela.* "Braindead" *esate baterako estreinua izango da (zine-jaialditan bakarrik ikusi izan da) eta benetan gomendatzen dudan filmea da. Gore-basatia, jendeak barre egingo du, dudarik ez".*

Beraz, 300 pezetaren truke, butakei ondo eutsi eta beldur pixkat pasatzeko aukera proposatzen dizuete filme guzti horiek. Horrela bada, badaezpada, zinera lagunduta joan behar...

## PELIKULA GUZTIAK

| | |
|---|---|
| **APIRILAK 28** | ***Evilio.*** 1992. Santiago Segura. |
| | ***Perturbado.*** 1993. Santiago Segura. |
| | ***Mirindas asesinas.*** 1990. Alex de la Iglesia. |
| | ***Akira.*** 1989. Katsuhiro Otomo. |
| **MAIATZAK 5** | ***Drácula.*** 1993. Francis Ford Coppola. |
| **MAIATZAK 12** | ***Delicatessen.*** 1990. Marc Caro eta Jean Pierre Jeunet. |
| **MAIATZAK 19** | ***Braindead.*** 1992. Peter Jackson. |
| **MAIATZAK 26** | ***Henry, retrato de un asesino.*** 1986. John Mc Naughton. |
| **EKAINAK 2** | ***Baby Blood.*** 1989. Alain Robak. |
| **EKAINAK 9** | ***La mitad oscura.*** 1993. George A. Romero. |
| **EKAINAK 16** | ***El sótano del miedo.*** 1991. Wes Craven. |

MAKAILO ETXEA
Makailau kazuelak gertatzen ditugu
Ibargarai 15

IBARGUREN PENTSUAK
Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.
San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

### Adierazpen askatasuna? Guztiontzat!!

Konturatu gara, oraindik ere badagoela jende bat ez dena ohartu pintaden mobida guzti hau nola sortu zen eta zergatik sortu zen.

Plataforma hau sortu baino lehen, kolektibo bakoitza indibidualki mugitzen zen; gure pankartak, kartelak... kaleratuz. Hori bai, etxe historiko eta artistiko fatxadak errespetatuz!!

Heldu zen momentu bat kokoteraino jarri ginena zenbait instituziok hartu zuten jarreragaitik. Jartzen genituen pankarta, kartel... guztiak hurrengo goizean kentzen zituztelako.

Ondoren Udaletxeak kolektibo konkretu bati mural handi bat egiteko aukera eman zion eta horren truke Udaletxeak, kolektibo horri, 500.000 pta.ko dirutza eman zion. Eta beste kolektibo guztiak zer? Non dago Adierazpen Askatasuna? Beste kolektibo asko prest gaude dirutza horren truke, horrelako muralak egiteko! Ez al dugu eskubiderik? Eta horrela, herriko ia kolektibo guztiak elkartu ginen arazo honi erantzuna emateko. Adierazpen Askatasunaren alde borrokatzeko!

Plataforma antzeko bat osatu genuen eta denon artean, plazako pareta mural horrek estaltzen zuenez, guretzat gelditzen zen toki bakarra lurra genuelarik. Horrela, zenbait taldek, beraien grafiti, marrazki... egin genituen.

Era berean, aprobetxatu nahi dugu aukera hau, zenbait jendek Berrigarara idatzitako eskutitzei erantzuna emateko.

Argi utzi nahi dugun gauza bat zera da: platafoma honetatik kanpo jende asko bizi dela eta edozeinek egin ditzakeela pintadak.

Guk egindako pintadak, horma hotsetan egin ditugula eta beste edozein pertsona bezala herri honetan bizitzeko eskubide berdinak ditugula eta borroka honetan ez dugula etsiko!!

ADIERAZPEN ASKATASUNAREN ALDEKO KOLEKTIBOA

### Ez dago aitzakiarik

24.000 km dira Bergarako gure presoengandik urruntzen gaituztenak; honela aurkitzen dira legeak esaten duenari bizkarra eman eta inongo lotsarik gabe urrundu bait dituzte beraien familia eta lagunengandik.

Sakabanaketa honen ondorioz, gainera, mehatxuak, kolpeak, tratu txarrak eta beste hainbat tortura sufritu behar izaten dituzte. Baina 17 bergarar horietaz aparte Euskal Herrian badira beste hainbat egoera lazgarri honetara inongo aitzakiarik gabe "bizitzera" behartuak.

Legeak argi eta garbi dio preso bakoitza bere bizilekutik ahal den eta hurbilen espetxeratua egon behar duena baina ez da honelakorik gertatzen euskal presoekin, legeak egin dituztenek beraiek ez bait dituzte hauek betetzen.

Beraz, legea eskuan dugula eta legeak dioena bete dadin eskatuz bergarar preso eta euskal preso guztiak Euskal Herriko espetxeetara ekartzea eskatzen dugu gutun honen bidez; ez bait dago eskubiderik ezta aitzakiarik ere presoek jasaten duten sakabanaketarako eta honen ondorioz sufritzen duten mehatxu, txantaia eta tratu txarretarako.

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA !!

MIGUEL ALTUNA INSTITUTOKO ETA IPINTZA INSTITUTOKO IKASLEAK

## Tiiira biraka

JULIAN EZENARRO



### ♦ San Prudentzioko jaiak

Astebukaera honetan San Prudentzioko jaiak hasiko dira Elorregi auzoan. Igandean, apirilak 24, gizonezkoek gertatutako auzoko emakumeentzako txokolatada izango da 18.30etan. Asteazkenean, txopo jasotzea eta kanpaiak jotzea arratsaldeko 6etan. Ostegunean, San Prudentzio egunean, Meza Santua arratsaldeko 7etan.

### ♦ Azterketa medikoak

Gidatzeko karneta edota ehizarako lizentziak eskuratu ahal izateko beharrezkoa den errekonozimendu medikua egin ahal izango da astelehenetik aurrera lehengo lokalean, Ibargarai kalean. Ordutegia astelehenetik ostegunera 17.30etatik 19.30etara izango da.



Gaztetxearen desalojoaren kontrako manifestazioa izan zen azaroaren 15ean.

# Zigor kartzela eskatu du fiskalak herriko hiru gazterentzat

***Azaroaren 15ean udal bulegoetan izandako istiluen ondorioz***

Fiskalak K.L. eta I.A.-rentzat urtebeteko kartzela zigorra eta A.A.rentzat 3 urtekoa eskatu du, pasa den azaroaren 15ean, goizean, udal bulegoetan izandako istiluak kontutan hartuz eta *"desacato a la autoridad"* delituagatik.

Aipatutako egunean Gaztetxeko kideek eta Bergarako hainbat ikastetxeetako ikasleek manifestazio bat egin zuten herriko kaleetan Ertzaintzak Gaztetxean entzerratuta zeuden gazteak desalojatu ondoren. Zenbait gaztek udal bulegoetara jo zuten eta han, tira-birak izan ziren gazteak eta alkatearen artean. Victoriano Gallastegi alkateak, udaltzainen informean oinarrituz, 7 gazteren kontrako denuntzia jarri zuen; ondoren 6 gazte izan ziren akusatuak eta azkenean, badirudi, K.L, I.A. eta A.A gazte bergararrak epaituko dituztela.

Hasiera batetan akusazio partikularrak atzera egin du baina Fiskalak aurrera darrai dilijentziekin. Momentuan Fiskala defentsaren erantzunaren zai dago epaiketaren fetxa jarri ahal izateko. Auzia Gabonak aldera izan daiteke.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

TABERNA ZAHARRA
Jatetxea
Bazkariak eta afariak
Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

EDEL
TAPIZDENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14, BERGARA

### ◆ Gurasoen bilera Miguel Altuna Institutuan

Astelehenean, apirilak 25, Miguel Altuna Institutuak (Elementala) bere eskeintza edukatiboari buruzko bilera informatiboa eskeiniko du arratsaldeko 7etan, Aranzadi Ikastola eta Mariaren Lagundiko 8. mailako ikasleen gurasoei dei berezi bat luzatzen zaielarik. Era berean, zegokion bilerara etortzerik izan ez zuten 8. mailako ikasleen gurasoak gonbidatuta daude.

### ◆ Kikaundik begiraleak behar ditu uztailerako

Kikaundi O.E.k uztailean udaleku irekiak antolatuko ditu eta haurrekin lan egiteko, begiraleak behar dira. Betebeharreko baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiagoko bergararra izan eta euskara menderatu. Era berean, begirale titulo izatea, majisteritza, pedagogia, psikolojia edo antzeko ikasketetan ihardutea edota haurren munduarekin loturik dauden zenbait esperientzia izatea baloratuko da. Izenematea Ludotekan (Aranzadi Ikastolaren 2. pisuan) egin beharko da apirilaren 29a baino lehen, 5.30etatik 7.30etara.




*Senideaki* beren elkartasuna adieraziz, argazkian, Fermin Lazkano, Duni Olabarria, Tere Guridi, Kristina Elkoro, Manuela Campillo, Amaia Aranzabal eta Joxe Lazkano.

## Presoen Euskal Herriratzearen alde

### *Bihar manifestazio bat egingo da Donostian 5.30etan*

Euskal presoen familiarren *"Senideak"* elkarteak prentsaurreko bat eman zuen astelehenean, euskal presoen Euskal Herriratzea eskatzeko bihar Donostian, egingo den manifestaziorako deia zabaltzeko. Manifestazio honek, besteak beste, Gureak, Ahaideak, Salhaketa, AFFAPen edota Intsumisoen Senideen laguntza izango du.

Gaur egun Bergarako 17 preso politiko eta beste 3 sozial dira Estatuan zehar sakabanatuta. Kristina Elkororen hitzetan, *"honek senideontzat astero 10-40 minutuko bisita bat egiteko milaka kilometro egitea suposatzen du, honek dakarren gastu ekonomikoa eta, zenbaitetan gertatu den bezala, bizitza errepidean galtzeko arriskua. Horrez gain, dispertsio honek presoen inkomunikazioa eta giza eskubideen zapalketa babesten du. Gainera, dispertsioa guztiz ilegala da, Konstituzioan presoek beren etxetik gertu egoteko aukera daukatela jasotzen baita".* Azkenik herrian jarritako pankartak eta Plazako panela norbaitek txikitzea salatu zuen.

Autobusak 15.30etan aterako dira bihar Frontoitik.

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93
• Ateak, zokaloak
• Horma armairuak
• Sarrailak eta manilak
• Koadroen enmarkazioa
• Era guztietako moldurak
• Apalak
• Kajoiak

ANTIA
ARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero, 2 behea.
☎ 76 43 07

GAZTELU
Burdinaki denda
Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



# Marisabel Hurtado

# ESTETIKA UDABERRIAN

*Udaberrian erakusten du azalak neguan zehar pilatu den lehortasuna eta iritsi da beharrezko neurriak hartzeko momentua*

### ESTETIKA UDABERRIAN

Udaberriaren hasiera une egokia da balorazio zainketa estetiko bereziak egiteko.
Hilabete askotan zehar azalak hotza, haizea eta hezetasuna jasan ditu, etxebizitza eta kalearen arteko bapateko tenperatura aldaketak ahaztu gabe: lantoki eta leku publiko beroegiak eta kanpoko hazie hotza.
Oraintxe erakusten du azalak neguan zehar pilatu den lehortasuna eta iritsi da beharrezko neurriak hartzeko momentua.

### UDABERRIA: AZALAREN BERRIZKETA

Berrizte tratamentua egin beharra dago eta lehen urratsa hildako zelulak kentzen dituen peeling-a egitea da, aldi berean azalaren tanketa eta aurpegiko adierazpen arrastoak leunduz.
Peeling-a eginda, azalak askoz ere errezago hartzen du ematen zaiona, hildako zelulak kendu nahi baititugu (hauek, etxean erabiltzen dituzun mantenu produktuak azalean behar bezala sartzeko traba egiten dute). Orain zure azala egoera ezin hobean dago hidratatu, elikatu eta berrizteko tratamentuari ekiteko.
Repain Complex dosi bat ematen dugu, hau da, «Zehaztasun haundiko hidratazio era naturala» (zure azalaren sakoneko gauzak hidratatzen dituen aminoazido konplexua).

Ondoren Hidrovet ematen dugu: kosmetika zientziak lortu duen zeramida naturalen konbinaketa eraginkorrena (zeramida naturalak azalaren ura gordetzeko zehaztasun haundiko baliabide gisa kateatzen dira).
Aosaine-SPD-Marie-k, zuntz malgu eta zimurren aurkako ahalmen haundia duen molekula batez, Levicutin-ekin batera hiru eratako eraginak ditu:

**ERAGIN LISAGARRIA:** eragin lisagarri ikusgarria zimurretan.

**ERAGIN OSAGARRIA:** zimurrak sustraitik kanporuntz bultzatuko dira, txikienak desagertu egiten dira, eta sakonenak leundu, askotan ikustezinak bihurtzen direlarik.

**AURREZAINTZE ERAGINA:** geroko zimurrak ez agertzeko.

Etxean egin beharreko mantenua:
Goizez: Extra-Perfoman esnea eta tonikoa, Hidrating total 24 ordu eta Extra-Perfoman 10, hidratazio egoki eta ezin hobea lortzeko.
Gauez: Extra-Perfoman esnea eta tonikoa sakonki elikatu Extra-Perfoman Zeramida Naturalak-ekin.
Hilean behin zortzi eguneko tratamendua gauero Rpain-Conplex-en zortzi tantarekin edo Aosaine-SPD-Marine dosi batekin.
Honela erabat berratzen dira emaitzak.

GIARTZU

*Garenean espezialistak gara!!*

*Elikadura*

# Dieta bai, baina orekatua



**NORA AZKARATE**

*(dietetika ikaslea)*

**- Uda datorrela eta, kilotxo batzuk kentzeko jendeak gehiago zaintzen du jaten duena?**

- Bai, baina ezjakintasunaren ondorioz askotan astakeria galantak egiten ditugu. Gizentzen duten elikagaiak jateari uzten diogu; askotan gure ustez gizentzen duten elikagai batzu gure dietatik ezabatzen ditugu eta horrek luzera gure gorputzean gabeziak sor ditzake, eta gabezia horiek anemia, rakitismoa... eta halako gaixotasunak sor ditzakete, nahiz eta askotan gu ez konturatu.

Dieta milagrosoak ere hor dira: errebistetan, telebistan... agertzen diren dieta "milagrosoak" jarraitzea ere ohitura zabaldua da. Egun gutxitan kilo pila bat kentzea gorputzarentzako oso gogorra da eta gainera, kilo horiek, normalean, berehala hartzen dira.

Eta, azkenik, farmakoak aipatuko nituzke. Diuretiko, aringarri (laxanteak), anorexigenikoak... sendagilearen kontrolpean hartu behar dira soilik, oso arriskutsuak baitira. Esaterako anorexigenikoak diren anfetaminak dependientzia sortzen dute, eta diuretiko gehiegi hartzeak deshidratazio batera eraman gaitzake.

**- Eta dieta behar bezala ez egiteak zer ondorio ekar ditzake?**

- Arazo fisikoak alde batetik eta psikikoak bestetik. Fisikoen artean anemia (burdinaren defizientzia), osteoporosia, kariesa... (kaltzioaren defizientziaz), rakitismoa, ahultasuna (proteina falta), disfuntzio metabolikoak, itsutasuna, eskorbutua (bitamina ezagatik) edota alterazio hormonalak (lipidoen falta) aipa daitezke. Psikikoen artean, berriz, argaltzea obsesio bat bihurtzen bada anorexia (nahiz eta argala egon bere burua gizena ikusten du eta ez du jaten) edo bulimia (pertsonak antsietatearen eraginez behar duena baino askoz gehiago jaten du eta ondoren, errudun sentitzen denez, botaka egiten du) etor daitezke. Gazteen artean ematen diren gaixotasun hauek oso arriskutsuak dira, eta batzutan heriotza ere ekar dezakete.

**- Eta zein gomendio emango zeniguke?**

- Informatzea, ohitura txarrak aldatu, obsesiorik ez hartu, kirola egin, plater txikiago eta zapalagoetan jan, poliki jan (zati txikixak hartuz), alkohola kontrolatu, erosketak egin aurretik zerrenda bat egin, eta ez egin erosketak gosez zaudela. Eta denetarik jan, baina neurrian, eta kilo dexente kendu nahi direnean espezialista batengana joan.

**"Denetarik jan behar da, neurrian, eta kilo kopuru garrantzitsua kentzeko espezialistarengana joan"**



Kiloak ez hartu eta behar den moduan elikatzeko komenigarria da erosketak egin aurretik zerrenda bat egitea.

TXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

20 urte zure zerbitzura, kalitatezko altzariak eskaintzen
ederTu
Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

# DAVID AZURZA

## *Bergarako Orfeoiko zuzendaria*

**Bergarako Orfeoiak hartu duen bide berriari buruz hitzegiteko, orain dela urtebete ezkeroztik zuzendaritza lanak egiten dituen David Azurza tolosarrarekin izan gara.**

**- Zer moduz Ejea de los Caballerosen?**

- Kontutan hartuz lehiaketa batean lehen aldiz parte hartzen genuela, esperientzia polita izan da. Parte hartzerakoan bi erronka genituen. Lehena errepertorio berria landu eta ondo asimilatzea zen eta hori bete dugula uste dut. Lana ondo egin dugu, baina lehiaketa baten aritzeak tentsioa kontrolatzea eskatzen du eta alde horretatik ondo erantzun zuen Orfeoiak Ejean. Gainera aurten jende berria sartu da eta hauek ere ondo erantzun dute.

**- Urtebete daramazu Orfeoia zuzentzen. Aldaketarik egin al duzu?**

- Nik hasieratik lan argia eta metodikoa planteatu nuen. Helburua taldeko lana bultzatzea izan da. Ohituta gaude entzutera abesbatzek taldea indartu beharrean, ahots bakar batzuk indartzen dituztela. Nire ustez koroa talde bat da eta ahots guztiak, kalitate desberdinekoak izan arren, maila berean baloratu behar dira. Azkenaldian teknika bokaleko ikastaroak egiten ari gara maila hobetzeko eta hasi gara entsaiuetan hobekuntzak igartzen.



Azurza Tolosako beste bi abesbatzako zuzendaria da eta "Miserableak" eta "El borracho burlado" muntaietan parte hartzen du.

**- Aipatu duzun aldaketa hori, taldea ahots bakar batzuen gainetik jartzea, nola hartu du Bergarako zalegoak?**

- Bergaran kurtso amaieran eta Gabonetan egin ditugu kontzertuak eta entzundako komentarioen arabera jendeari gustatu zaio aldaketa. Badira batzuk oraingo Orfeoia duela 15 urtekoarekin konparatzen dutenak. Nik uste dut ezin direla konparatu. Lehen ahots bakarrak gehiago baloratzen ziren. Batzuk esaten dute ez dugula lehengo Orfeoiaren "bolumena" baina hori indartzen ari gara.

**- Ze proiektu ditu Orfeoiak?**

- Berliozen Te Deum lana egingo dugu, Arrasateko, Eskoriatzako eta Zumarragako koruekin. Lanak 300 kantari inguru bilduko ditu eta orkestrak, Donibane Lohitzunekoa, 160 lagun inguru izango ditu. Lana garrantzitsua da eta espero dugu datorren abendurako prest izango dela. Kontzertuak Hendaian, Donibane Lohitzunen eta Arrasaten egingo ditugu. Bergaran egitea ere espero dugu.

**- Nola ikusten duzu gure herriko giro musikala?**

- Hemen nagoenetik, gero eta inpresio hobeagoa hartu dut. Ez nekien hemen Orkestra sinfonikoa, Banda, Aritzeta, Orfeoia... zeudenik eta hori oso interesgarria da. Bandak eta Orkestrak maila ona dute eta hori ez da edozein tokitan aurkitzen.

## *"Ahots guztiak, kalitate ezberdinekoak izan arren, maila berean baloratu behar dira"*

TXURRUKA AUTOAK
Taxi eta mikrobus zerbitzua.
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.
Era guztietako erreparazioak.
Garbiketak, etab...
Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.
☎ 76 12 36 - 76 09 30
Agentzia
PEUGEOT-TALBOT

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

# TRENBIDE ZAHARRA

**Gure herritik 1918an pasatu zen lehen aldiz trena, baina 1968ko urtarrilaren batean trenaren zaratak betirako laga gintuen. Ordutik hona pixkana pixkanaka trenbidearen bidea hondatzen joan da. Orain Arrasaten sortu den Trenbide Zaharra Berreskuratzearen Aldeko taldeak, bide hori berreskuratu nahi du. Baina ez trenarentzat, oinezko eta bizikletazaleentzat baizik.**



Kaminoa guztiz ondo ez dagoen arren, asko dira trenbide zaharra pasiatzeko eta mendiko bizikletarekin ibiltzeko erabiltzen dutenak.

## Bizikletan ibiltzeko *errepide berria*

Maltzagatik Gasteizerainoko lehengo trenbidea oinezko eta txirrindularientzat egokitzeko arrazoiak sobran daudela uste dute Trenbide zaharra berreskuratzearen aldeko taldekoek. Arrasateko 40 elkartek sinatutako agirian ikus daitekeenez, gero eta gehiago dira oinez paseatu edo bizikletan ibiltzen direnak.

Datu hori arrazoitzeko Jose Mari Eraña arrasatearrak, berreskuratzearen aldeko taldeko kideak, adierazi digunez. *"Kanpaina hasera batean Arrasaten hasi dugu, baina proiektuak Deba Garaia osoan edukiko luke eragina. Aintzinako trenbideak gure bailara zeharkatzen baitu. Arrasaten 40 talde agertu dira proiektuaren alde eta horien artean ikastetxeak, jubilatuen elkarteak, kirol elkarteak etbak daude. Horrek adierazten du institutzioen eta gizartearen interesak batzutan bide desberdinetatik doazela".*

Taldeak IGPeetan bi ponentzia aurkeztu ditu. Bata Alfonso Sanz geografo hirigile madrildarrak aurkeztua eta bestea Eukeni Olabarrieta medikuak egindakoa. *"IGPeetan izandako erantzuna oso ona izan da. Taldeetako partaideek esan zigutenez ados daude aintzinako trenbidea oinezko eta bizikletentzat erabiltzearekin. Gainera askok esan ziguten gezurra dirudiela hori erakundeetatik irten beharrean gu*

ARRASATEARRA
Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.
Taberna
Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

ONENA
TINDATEGIA
Barrenkale 29, BERGARA

# Trenbide zaharra berreskuratzeko eta oinezkoentzat eta bizikletan dabiltzanentzat bidea konpontzeko, talde bat sortu da Leintz bailaran

*bezalako talde batek aurkeztea"* dio Erañak.

Arrasaten sortutako taldeak ez du eskatzen Maltzaga-Urbina autopista, autobidea edo oraingo bidea konpondu behar denik. Beren helburua orain ditugun oinezkoen bideak hondatu edo suntsitu gabe egingo direla ziurtatzea, eta hori posible izango ez balitz alternatibak ematea. *"Oraindik ere gogoan ditugu bi kasu. Arrasateko bariantea egin zutenean aintzinako trenaren ibilbidea askok erabiltzen zuen Aretxabaletara joateko. Gaur egun, ibilaldia errepide-bazterretik egin behar da, horrek daukan arriskuarekin. Kanpazarren egiten ari diren bidea dela eta, Epeleko obren ondorioz bideari beste zati bat kendu diote"* esan digu Erañak.

**Ibilgailuak eta oinezkoak**

Ekintzaren bultzatzaileen ustez ibilgailuek eta oinezkoek bakoitzak bere espazioa izan behar lukete. Alfonso Sanzek aurkeztutako informean azaltzen denez, egiten diren errepide berriek gero eta gehiago izaten dute kontutan ibilgailu motorizatuen premiak, oinezko eta bizikletazaleak baztertuz. Horrek, Sanzen txostenean aipatzen denez, biztanle askorentzat autonomia falta dakar ezin baitute automobila erabili edo ez dutelako behar bezalako garraio kolektiborik. Gauza askotan bezala Europa mailan trenbide zaharrak berreskuratzeko proiektuak lehenago ere egin dira.

Horrela Britainia Handian 1979an "Sustrans" erakunde ez-gubernamentala sortu zen eta ordutik hona 200 km birgaitu dira. Bide horien kostuari dagokionez kilometroko 4 miloitik 10 miloira pzta bitartean dago. Estatu Espainiarrean egin diren ikerketen arabera berreskura daitezkeen trenbide zaharrak 5.000 eta 6.500 km artekoak dira. Inbentario horren barruan Lizarra-Gasteiz-Mekolalde, Maltzaga-Zumarraga eta Durango-Elorrio lineak daude.

**Erakundeekiko harremanak**

Trenbide zaharra berreskuratzearen aldeko taldeak hainbat kontaktu izan dituzte. Horien artean Josu Bergara Garraio eta Herrilan Sailburuarekin, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatearekin, EKI talde ekologistarekin, Mondragon Korporaziokoekin eta datorren astean Eli Galdosekin elkarrizketatuko dira. Erañak esan digunez *"izandako elkarrizketetan guztiek positibotzat jo dute gure proposamena, nahiz eta oraindik ez daukagun inongo konfirmazio ofizialik"*.

Halere Eusko Jaurlaritzak duela gutxi plan bat egin du EAEn bizikletabideak eraikitzeko. Plan horrek bi helburu ditu, bata bizikletak trafikoaren arriskutik isolatzea eta bestea, bizikletaren erabilera sustatzea. Plan horren arabera Bergara-Arrasate zatirako 71,8 miloitako aurrekontua dago eta Eskoriatza-Arrasaterako 73,9 miloi pzta. Maltzaga-Gasteiz trenbide zaharrari jarraituko liokeen ardatz zentralak izango luke lehentasuna plan horretan. Baina Arrasaten sortu den taldeak dioenez, *"plan hori, ez da batere gauzatu"*.

Hemendik aurrera taldeak, konfirmatuta ez dagoen arren, amaiera ekitaldi bat antolatu nahi du. Bertan ekimen honen sinatzaileek, komunikabideak eta administrazioko kideak batzeko asmoa dute gaiari buruz eztabaidatzeko. Horrezaz gain trenbidean zehar bi irteera egiteko asmoa dute.

Lehena bizikletaz Arrasatetik- Mekolalderaino eta bestea, oinezkoentzat, Arrasatetik-Eskoriatzara.



Zikloturista ugari dabil inguruko errepideetan.

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

ZABALETA ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparateak...
Amilaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

# denbora pasa

## asmakiloa

*Errege batek bere morroiari ohasi batera joateko esaten dio. Handik 4 litro ur ekartzeko esaten dio, baina bi lapiko ematen dizkio. Bat 3 litrokoa eta bestea 5ekoa.*

***Nola ekarriko du 4 litro ur lapiko hauekin?***

*OHARRA:*

*Ezin da joan eta etorri bi aldiz.*

*Ezin dira lapikoetan markak egin.*

SOLUZIOA:

Hartzen duzu 5 litro ur, kentzen diozu hirukoa eta bi geratzen zaizu. Geratzen zaizkizun 2 litroak 3 litroko lapikoan botatzen dituzu eta bat falta zaizu 3 egiteko. Hartzen duzu 5 litro eta 3koari botatzen diozu bete arte lapikoa, orduan 5 liotroko lapikoan 4 litrorekin geratzen da.

DAVID GARCIA, 1. REM "A"

## jakin behar duzuna

**Jertsea boligrafoaren tintaz zikintzen bada ura eta bikarbonatoarekin ontzi batean sartu behar duzu hozkailuan egun bat eduki eta dena ezabatuko da.**

**Egurrezko muebleak brilo gabe badaude bota behar diezu trapu batekin azalendako erabiltzen den azetona eta pasa balitz bezala geldituko zaizkizu.**

**Dutxa hartzerakoan ispiluak lurrunez gelditzen badira burua lehortzeko aparailua piztu eta pixkat urrutitik jarri behar duzu gehienezko potentziarekin eta bi minutura berriak balira bezala geldituko dira.**

YOANA ARRANZ, 1 REM "A"

## hizki Zopa

**Topa itzazu euskal edota Euskal Herriko lehen mailako taldeetan ari diren 20 futbolariren izenak.**

FRANCISCO JOSE JUAN GONZALEZ 1. REM "A"

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | A | X | A | E | I | M | A | M | R | 0 | B | E | R | T | 0 | E | V | H | A | E |
| H | L | S | T | U | O | R | E | N | I | L | A | S | E | H | D | S | A | W | L | W |
| W | K | B | U | S | T | I | N | G | O | R | R | I | K | E | E | K | L | X | B | C |
| A | I | A | I | X | A | J | V | A | U | W | X | X | T | X | P | U | E | T | E | F |
| E | Z | A | E | S | X | X | L | V | R | E | X | X | J | K | E | R | N | A | R | C |
| F | A | K | H | T | T | C | A | C | B | C | R | W | A | W | D | Z | C | E | T | A |
| 0 | A | K | J | A | N | E | K | K | A | C | C | R | T | C | R | A | I | F | O | C |
| C | E | G | J | E | B | A | G | X | N | C | J | C | E | C | O | T | A | S | F | A |
| E | A | X | X | A | X | D | C | I | X | T | E | A | C | R | H | L | E | F | G | A |
| A | T | X | K | W | O | N | C | X | A | T | B | T | C | C | O | T | C | A | U | F |
| N | T | I | W | R | X | A | G | B | I | U | R | R | U | N | N | C | Ñ | N | C | X |
| O | P | X | D | X | N | G | C | H | W | H | F | X | F | E | C | A | I | C | N | A |
| O | X | O | W | J | E | I | T | C | F | F | J | F | U | C | R | R | C | X | Z | M |
| O | K | B | W | I | J | Z | I | O | B | E | R | F | C | R | D | L | X | C | T | N |
| A | B | W | T | U | Y | A | M | I | A | J | G | L | A | N | L | W | C | O | A | E |
| V | A | L | V | E | R | D | E | T | E | M | E | L | A | B | A | R | K | E | R | O |

# MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

## 11. ZENBAKIA

**Azken bolada honetan gure eskolako neska-mutilak hasi gara idazten bai bertako aldizkarian (ELEMEN PRESSen), baina hemen, BERRIGARAn, eta honi buruzko iritziak jaso nahi izan ditugu.**
***Zer deritzozue zuen lanak argitaratzeari?***

### Idaztera animatzeko modu oso ona

Nire ustez lanak argitaratzea oso ondo dago. Lan on batek jendearen aurrean agertzeak merezi du eta aparte jendea idaztera animatzeko ere modu on bat izan daitekeela iruditzen zait.

Beste puntu batetik begiratuta, aldiz, alderantziz ikusten dut hau zeren agian tipo batek ongi idazten du eta zerbait argitaratu eta jende guztiaren kritika eta barreak idazteko gogoa kentzen du eta jendearen aurrean gaizki geratzeko beldurra izan dezake. Baina hori ez gertatzeko argitaratutako gauza, anonimo bezala aurkez daiteke eta horrela gaizki egon ala ez, idazleak ez luke gaizki geratzeko aukerarik izango eta gauzak normal jarraituko lukete, inongo eragozpenik gabe.

Ona balitz, ordea, hurrengoan beste zerbait argitaratzean ez luke anonimoa izan beharrik eta honela denen aurrean ondo geratu eta kitto!. Gainera norbaiti idazteko zaletasuna ere agian haunditu lekioke, hori inork ez daki, eta hori gertatuz gero, ondo baino hobeto egongo lirateke gauzak.

AITZOL MENDIZABAL 2. IEE "D"

**iritziak**

### Ideia oso ederra

Aldizkari hau sortzea oso ideia ona izan da. Ikaskideei aukera ematea da, pentsatzen dutena jendeari adierazteko. Hilero ateratzen dira bertso berriak, txisteak eta abar. Elkarrizketak oso ondo egoten dira eta informazioa jasotzen dugu. Nire ustez jende gehiagok parte hartuko beharko luke aldizkarian.

Beste aldetik argazkiarena ideia ederra izan da, zeren aldizkaria ez da izan behar dena irakurtzeko, bere atal bereziak ere eduki behar ditu nahiz eta asmakizunak batere errezak ez izan irakasle oso gazteak agertzen direlako.

Aldizkariaren banaketa (dohainik) oso ondo egon da eta honela segitzea espero dut ea jendea animatzen den.

AROA VICENTE
2. IEE "D"

## HITZAK

**Hitz hutsak batzutan,**
**hitz dotoreak bestetan,**
**hitz, hitza, hitzak**
**egunero erabiltzen ditugunak.**

**Hitz egin nazazu,**
**zure ahoa**
**hitzez bete ezazu.**

**Hitzen iturria**
**zabal dezagun,**
**bertatik edanez,**
**bertatik edanez**

**Idatziko dut,**
**idatziko dugu,**
**gure hitzak argia**
**ezagutu nahi dute,**
**argiaren bidea,**
**lagunaren eskua**
**denaren laguntza.**

**Ahoa nekatuta duenak**
**luma hartu dezala,**
**hitzak marrazteko**
**esku bakarra erabiliz**
**hitzak esna ditzala**

**Hitzak, liburuen jardinetan**
**larrosa politenak...**

**Hitzak idatziz**
**jaiotzen direnak,**
**hitzak hitz eginez**
**sortzen direnak,**
**hitzak hitzak izanez**
**bizitza ematen digutenak.**

**Poztu zaitezte**
**hitzaren ahalmena**
**dezuten guztiok!**

**Erabili ezazue**
**hitz guzti horiek,**
**hitzek eraikitako mundua**
**munduari erakusteko**

OSANE JIMENEZ
2. BAG

# Estresatuta bizi zara?



**Tomas Eguren**
*72 urte, jubilatua*

Ni trankil xamar bizi naiz. Hala ere, beti prisaka nabil eta egunak 24 ordu eduki beharrean 25 izango balitu hobe, baina estresik ez.



**Adela Castuera**
*45 urte, etxekoandrea*

Bai, bizimodu honekin estresatu xamar bizi naizela esango nuke. Egun guztian zehar alde batetik bestera, ezertarako astirik topatu barik...



**Jose Manuel Iturrospe**
*35 urte, langilea*

Ezetz, uste dut ezetz. Ahalik eta ondoen bizitzen ahalegintzen naiz, osasuna zaindu, ondo elikatu, lanik ezaren ardurarik ez daukat...



**Ines Martínez**
*24 urte, etxekoandrea*

Sasoi batean estresatu xamar egon nintzen baina gaur egun ez. Ezkonduta nago, ez dut lanik egiten..., trankilago bizi naiz eta aspertzeko astia ere badaukat.



**Igor Gauna**
*22 urte, langabetua*

Ez. Lanik ez daukat eta gainera Osintxun primeran bizi gara, ja, ja, ja. Bromak alde batera, estresak buruhauste haundirik ez dit ematen.



**Juani Arrieta**
*44 urte, etxekoandrea*

Askotan guk estresatzen dugula geure burua, geuk eragiten dugula gaixotasuna, geure bizimodu honengatik. Gauzak trankilago hartu behar dira.

Biltoki
dekorazioa
GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK, ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK, DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK
SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

xey
SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK. DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK. 5 URTEKO GARANTIA.
SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS
TEKNOLOGIA ETA DISEINUA. TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

SONY
TB, BIDEOAK, KAMARAK, HI-FI EKIPOAK, SUPER TRINITRON TB.
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



## *Korrupzioa eta fraudea*

Korrupzioa eta fraudea, inoiz baino gehiago erabili dira azken egunotan hitz horiek. Komunikabideetako esparru garrantzitsuenetan gai horiei buruzko artikulu eta komentarioak bata bestearen ondoren joan dira eta oraindik ere badoaz. Gai hau izan da, era berean, aste honetan egin den Nazioaren Egoerari buruzko eztabaidaren ardatza. Egia da «affaire» horiek, Roldán jaunarena eta Mariano Rubiorena, aztertu egin behar direla eta hartu behar diren neurriak hartu behar direla, baina tratamendu berbera, indar berbera erabili behar zen beste kasuetan, Juan Guerra, Alfonso Guerraren anaiaren kasuan adibidez. Orduan ez ziren ikerketak agindu oraingoan egin den bezala.

Zer gertatu da oraingoan Gobernuak berak hartu duen jarrera hartzeko? Zergatik jaso ditu orain PSOEtik Mariano Rubiok kritikarik gogorrenak Guerraren kasuan ia ezertxo ere ez zutenean egin? Zer gertatu da orain argitara eman den informazio guzti hori argitara emateko? Galdera asko eta asko gelditzen da aidean, baina fraudezaleak inguratzen gaituzten bitartean, guri errenta aitorpena aurkeztea tokatzen zaigu, eta hori bai, gogo haundiarekin edo gutxirekin, ireki dituzten bulegoetara joan beharko dugu aurtengoa aurkeztera.

**Ane Miren LIZARRALDE**



## *Egur bereko ezpalak*

Mariano Rubio eta Juan Guerra dira PSOEk utzitako ustez ustelkerietan ihardundako pertsonaiarik famatuenak. Itxura denez, Espainiako Bankuaren gobernari ohiak jasan beharko du azken aldi honetan ezagutzera eman diren ustelkeria kasuen ordaina, azken batean ehun milioi pezetako diru beltz kontu bategatik. Hasiera batean kopuru handia ematen badu ere, ez da hala beste batzuekin alderatuz gero (BOE delakoaren zuzendariak bakarrik paperetan mila milioi eraman zituen, Filesak eta Juan Guerrak...).

Juan Guerrak, atez ate Bibliak saltzen zituen gizon arrunt batek, banatuta zegoen alderdi bat elkarrarazi zuen Legebiltzarrean eta Julián Lagoren "La máquina de la verdad" bera hondatuta zegoela esaten ere ausartu zen. Oraingoz, beraren aurkako lau sumariotatik errugabe atera da. Mariano Rubioren erreakzioa harrigarria izan da. Espainiako Bankuaren gobernari ohia Woody Allen-ek "Toma el dinero y corre" deritzon filmean goxoki-makina batean lapurtzen harrapatu zutenean jarri zuen aurpegiarekin geratu zaigu bere irregulartasun fiskalak ez zituela ezagutzen eta gero. Sinpleegia maila horretako postu batean ziharduen pertsona batek duen finantzar sistemaren ezagupenerako, are sinpelagoa zelako aholkulari taldea izaten duten kontutan izanez gero. Zurrumurruak kalean daude: litezkeen kalteetatik arinena ala amorratutako bankariren baten mendekua?

**Jose DIAZ**



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51

FS Foto Sistema Albéniz

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

✔ Diapositiba errebelatzeak.
✔ Karneterako argazkiak momentuan.
✔ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
✔ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Ricardo eta Jaione larunbatean
Santa Marinatik irtetzen.

## Urrezko eztaiak

**Ricardo Otaño** eta **Jaione Zabaleta** bergararrek beren ezkontzaren urrezko eztaiak ospatu zituzten larunbatean. Orain dela 50 urteko apirilaren 14an ezkondu ziren eta larunbatean, hori ospatzeko, lehenbizi Santa Marinan meza entzun eta ondoren bazkaria egin zuten familiartekoekin batera Azpeitxi jatetxean. Han izan ziren, besteak beste, beren 8 seme-alabak eta 14 ilobak. Zorionak eta eutsi osasunari!!

## Snowboardeko promesa

**Aitor Delarriverette Ormazabal** 13 urteko bergararra txapeldun gertatu zen larunbatean Astunen jokatutako Neguko Kirol Txapelketako *snowboard* proban. Aitorrek *"Aguiluchos"* sailean lortu zuen garaipena eta bihar larunbata Formigaleko Openean parte hartuko du. Ea hor ere bere maila ona erakutsi eta emaitza on bat lortzen duen...



Juanjeren argazkian Aitor Delarriverette, snowboardeko probetan bikain ari den gazte bergararra.

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57



KORTA-ZAR
Txokolategia
*Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea*
OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK
Barrenkale 16, ☎ 76 20 62



Beti-Bustikoek Agorrosingo igerilekuetan entrenatzen dute.

## Beti-Bustiko gaztetxoak Joku Eskolarretan

**Beti-Busti piraguismo taldeko** gaztetxoak larunbatean Zumaian jokatutako Joku Eskolarretan izan ziren. 1980. urtean jaiotakoen artean, ur mantsoetan, Igor Setienek 7. postua lortu zuen 3.000 m.ko proban eta 1981koen artean, berriz, Gorka Fernández eta Ibai Morenok 6. eta 7. postuak eskuratu zituzten. Bihar larunbata Beti-Bustikoek ur bizietako slalom proban parte hartuko dute Bidasoa ibaian. Ea ur azkarretan ere ondo moldatzen diren...

## utbolin txapeldunak

**Aritz** eta **Gorka** bergararrek irabazi zuten larunbatean LAMek antolatutako futbolin txapelketa. Guztira, 39 bikotek hartu zuten parte eta emozioa ez zen falta Oilagorran, Pol-Polen eta Pizinetan jokatutako partidetan. Aritzek eta Gorkak 50.000 pta.ko saria eskuratu zuten. Bigarren Jaso eta Txori izan ziren (25.000) eta hirugarren Debatik etorritako bikote bat (10.000 pta.).



Aritz eta Gorkak jaso zuten lehen saria. Argazkian, Xabier Mujika LAMeko ordezkariarekin.

## Zertan *dihardute* ba?



**Jon** (argazkian) eta **Maite Agirrebeña** anai-arrebak larunbatean Astunen jokatutako Euskadiko Eski Txapelketako beren kategoriko irabazleak izan genituen. Jonek (14 urte) *Gigante* espezialitateko *"Aguiluchos"* sailean irabaztea lortu zuen eta Maitek (11 urte), berriz, alebinetan. Jonek adierazi digun bezala, *"pozik gaude baina ez zen batere erreza izan irabaztea. Sariak? Neri domina bat eman zidaten eta Maiteri ezer ere ez. Badirudi bere kategorikoentzako ez zegoela saririk"*. Jon 9 urte zituela hasi zen eskiatzen eta Maitek, berriz, 6 urterekin. Espainiako Txapelketan, Baqueiran, Jon 20. postuan gelditu zen.

Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF SERVICE-A
Barrenkale 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

TENERIFERA!!
Bolu Gimnasioan hilabeteko kuota ordaintzeagatik, Kanarietan bi pertsonarentzako astebeteko egonaldia (bost izarretako apartahotelean) doan.
GIMNASIOA B·O·L·U
ZATOZ!!

# *Amaia Agirre*

**20 urteko bergarar hau 7 urterekin hasi zen dantzan. Orain, Edu Muruamendiarazekin batera, Euskadiko Dantza Askatuko Txapelduna da eta Elikagaien Zientzia eta Teknolojia ikasten ari da.**



**- Dantzan bakarrik ala lagunduta?**
- Lagunduta.
**- Fandangoa ala arin-arina?**
- Arin-arina.
**- Albarkak ala zapatak?**
- Albarkak.
**- Dantzan egunez ala gauez?**
- Gauez.
**- Diskoteka ala auzoko erromeria?**
- Auzoko erromeria.
**- Dantzari on baten dieta?**
- Danetik jatea.
**- Gustoko ez duzun plater bat?**
- Berakatz zopa.
**- Okela ala arraina?**
- Okela.
**- Ogitarteko gogokoena?**
- Gazta tortila.
**- Jateko, ura ala ardoa?**
- Ez dut edaten jaterakoan.
**- Kafea azukrearekin ala gabe?**
- Azukrearekin.
**- Lagunik onenak, neskak ala mutilak?**
- Danetatik.
**- Bikinia ala trajebainua?**
- Bikinia.
**- Pijama ala kamisoia?**
- Niki bat.
**- Perfumerik?**
- Ez.
**- Zenbat ordu lo?**
- 8 bat.
**- Eta zerekin amets?**
- Machu-Pichura joatearekin.
**- Idazle bat.**
- J.R. Tolkien.
**- Abesti bat.**
- "Itxaropena" (Su ta Gar).
**- Musika instrumento bat.**
- Bateria.
**- Telebistako anuntzio bat.**
- "Abanderado"ren azkena.
**- Richard Gere ala Antonio Banderas?**
- Richard Gere.
**- Beldurrezko pelikulak atsegin?**
- Ez.
**- Bota dizuten lorerik politena?**
- Estás más buena que un pincho de la "Txoko".
**- "Stress"ik izaten duzu?**
- Bai, examinekin.
**- Eta lasaitzeko, zer?**
- Yoga egitea.
**- Ilargira bidaia egingo zenuke?**
- Bai.

*"Dantzan gauez egunez baino egitea nahiago dut eta erromerian diskotekan baino hobe. Berakatz zopa kenduta danetik jaten dut. Normalean 8 bat ordu lo egiten dut eta stressa azterketa garaian nabaritzen dut"*

**ARANE**
BIDRIERA ARTISTIKOAK
*Muralak, bidrierak, grabatuak, biselatuak, ispiluak eta era guztietako kristaleria egiten dugu.*
Iñigo Zabaleta *ZUZENEKO SALMENTA*
Arane-Barrengoa baserria. Arane auzoa 20.570 BERGARA ☎ 76 20 56

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Amets
Ford
• HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
• Zango erremolkeak.
• Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.
Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Eulali Elgarresta

**EULALI ELGARRESTA**k irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko galdera berak asmatu du. Hain zuzen ere San Pedro eta Santa Marina elizetako parrokoen izenak galdetzen genituen. Erantzunak, Fidel Eizagirre eta Xabier Zubizarreta dira. **Eulali** dugu aste honetako irabazlea eta berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. ZORIONAK **Eulali,** eta besteok segi jokatzen.

*Zein da "Intzanekua" bezala ezagutzen dugun XVII. mendeko etxe honen izena?*

**Izena:** ____________ **Abizena:** ________________ **Tfnoa:** ________

***Saria: 10.000 Pzta.***

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

***BERRIGARA***
***Errotalde Jauregia Bergara***

# ELKAR

**Arruriaga, 1 behea BERGARA ☎ 76 58 16**



- ***FOTOKOPIAK KOLORETAN***
- ***PLASTIFIKAZIOAK***
- ***PLANOEN KOPIAK***
- ***JENDEARENTZAKO FAXA***



- ***ENKUADERNAZIOAK***
  - ***TERMO ENKOLATUAK***
  - ***BURDINAZKO ESPIRALAK***
  - ***PLASTIKOZKO ESPIRALAK***
  - ***FAZIKULOAK***

**ESKAINTZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPERA (500 orri): 495 pzta.**

## 1. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Madura IND. GOL | **31** | 16 | 15 | 1 | 0 | 66 | 17 |
| 2. Errotagain | **25** | 16 | 12 | 1 | 3 | 74 | 29 |
| 3. Angiozar | **25** | 17 | 11 | 3 | 3 | 88 | 45 |
| 4. Tokieder | **23** | 16 | 10 | 3 | 3 | 87 | 36 |
| 5. Usoa | **20** | 17 | 8 | 4 | 5 | 56 | 44 |
| 6. Bar Canalejas | **20** | 17 | 8 | 4 | 5 | 58 | 52 |
| 7. Bildurbarek LAM | **18** | 17 | 10 | 0 | 7 | 77 | 70 |
| 8. Arloteak | **17** | 17 | 7 | 3 | 7 | 48 | 56 |
| 9. Mongatxurra | **16** | 16 | 8 | 1 | 7 | 64 | 48 |
| 10. Os Jardineiros | **16** | 17 | 6 | 4 | 7 | 65 | 76 |
| 11. Ogizun | **15** | 16 | 6 | 3 | 7 | 68 | 51 |
| 12. Akort Ariznoa | **14** | 16 | 6 | 2 | 8 | 53 | 72 |
| 13. Guadalest | **14** | 17 | 5 | 4 | 8 | 39 | 60 |
| 14. Nahikari Hool. | **13** | 17 | 5 | 3 | 9 | 43 | 53 |
| 15. Ezinleike | **13** | 16 | 5 | 3 | 8 | 43 | 71 |
| 16. OH Zerezos | **12** | 17 | 5 | 3 | 9 | 49 | 72 |
| 17. Kriterium | **10** | 17 | 3 | 4 | 10 | 43 | 62 |
| 18. Kriston Potruak | **9** | 16 | 4 | 2 | 10 | 61 | 84 |
| 19. Soropotroak | **8** | 17 | 4 | 0 | 13 | 44 | 68 |
| 20. Shaktale | **8** | 17 | 3 | 2 | 12 | 37 | 97 |

### emaitzak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Madura | 1 | 1 | Tokieder |
| Bildurbarek LAM | 2 | 3 | Kort Ariznoa |
| Usoa | 7 | 1 | Shaktale |
| Ezinleike | 1 | 6 | OH Zerezos |
| Errotagain | 2 | 3 | Angiozar |
| Guadalest | 1 | 3 | Os Jardineiros |
| Soropotroak | 1 | 5 | Kriterium |
| Arloteak | 1 | 4 | Bar Canalejas |
| Kriston Potruak | 0 | 17 | Ogizun Okind. |
| Mongatxurra | 5 | 3 | Nahikari Hool. |

### hurrengo partiduak

• IGANDEA •

barruan

9.00: Bildurbarek-Angiozar **(Guadalest)**
10.00: Guadalest-Shaktale **(OH Zerezos)**
11.00: Soropotroak-OH Zerez. **(Shaktale)**
16.30: Kriston Potruak-Madura **(Ezinleike)**
17.30: Ezinleike-Ogizun **(Mongatxurra)**
18.30: Mongatxurra-Toki Eder **(Arkupe)**

## 2. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Arkupe | **40** | 23 | 20 | 1 | 2 | 120 | 52 |
| 2. Kalimotxo | **38** | 23 | 19 | 0 | 4 | 134 | 58 |
| 3. Ufala | **37** | 23 | 18 | 1 | 4 | 111 | 47 |
| 4. Revienta | **37** | 23 | 18 | 1 | 4 | 97 | 55 |
| 5. Etxagi | **36** | 23 | 17 | 3 | 3 | 146 | 70 |
| 6. Ozaeta | **35** | 23 | 16 | 3 | 4 | 141 | 58 |
| 7. Hartu Zamak | **35** | 22 | 17 | 1 | 4 | 107 | 61 |
| 8. Uve Bikoitza | **30** | 23 | 14 | 2 | 7 | 122 | 84 |
| 9. Eri | **29** | 22 | 13 | 3 | 6 | 107 | 65 |
| 10. Amozkibar | **27** | 23 | 12 | 3 | 8 | 93 | 65 |
| 11. Ari Ari | **24** | 23 | 12 | 0 | 11 | 102 | 105 |
| 12. Igandekoak | **24** | 23 | 12 | 0 | 11 | 82 | 89 |
| 13. Txipiron | **23** | 23 | 9 | 5 | 9 | 63 | 68 |
| 14. Kirolzaleak | **21** | 23 | 10 | 1 | 12 | 79 | 106 |
| 15. Krai | **20** | 23 | 10 | 0 | 13 | 93 | 98 |
| 16. Paok San Juan | **20** | 23 | 9 | 3 | 11 | 70 | 77 |
| 17. Matalascañas | **19** | 23 | 8 | 4 | 11 | 61 | 80 |
| 18. Labegaraieta | **15** | 23 | 6 | 3 | 14 | 45 | 118 |
| 19. Los Txupeta | **14** | 23 | 6 | 2 | 15 | 59 | 87 |
| 20. Aldoka Maldoka | **14** | 23 | 6 | 2 | 15 | 54 | 113 |
| 21. EH Biterrak | **12** | 23 | 4 | 4 | 15 | 54 | 95 |
| 22. Pata Negra | **11** | 23 | 5 | 1 | 17 | 60 | 128 |
| 23. Eusebio II | **9** | 22 | 4 | 1 | 17 | 60 | 122 |
| 24. KK Usaina | **6** | 22 | 3 | 0 | 19 | 48 | 157 |

### emaitzak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Igandekoak | 2 | 8 | Amozkibar |
| KK Usaina | 8 | 2 | Kirolzaleak |
| Pok San Juan | 0 | 1 | Aldoka Maldoka |

### hurrengo partiduak

• LARUNBATA •

barruan

9.00: Labegaraieta-Krai **(Pata Negra)**
10.00: Kirolzaleak-Pata Negra **(Krai)**

kanpoan

9.00: Etxagi-Uve Bikoitza **(Igandekoak)**
10.00: Igandekoak-Ozaeta **(Uve Bikoitza)**
19.00: Hartu Zamak-Eri **(Antolatzaileak)**

• IGANDEA •

kanpoan

9.00: Txipiron-Revienta **(Ufala)**
10.00: Ufala-Paok San Juan **(Eri)**
11.00: EH Biterrak-Eri **(Paok)**
16.30: Amozkibar-KK Usaina **(Matalasc.)**
17.30: Ari Ari-Matalascañas **(Aldoka)**
18.30: Kalimotxo-Aldoka Maldoka **(Ari Ari)**

barruan

19.30: Hartu Zamak-Arkupe **(Toki Eder)**

### Txinpartak

▼ Madurak ligako 16. jardunaldera arte itxoin du bere lehendabiziko puntua galtzeko. Oraindik ez du partidurik galdu baina domekan ezin izan zion Tokiederri irabazi. Partidua banako berdinketarekin amaitu zen. Hala ere Madurak 6 puntuko aldearekin lehen mailako lider jarraitzen du.

▼ Ogizun taldeak 17 gol! egin zizkion Kriston Potruak taldeari aurreko jardunaldian. Salinerok 10 gol egin zituen eta beraz lehen mailako golegileen zerrendan aldea haunditzea lortu du. 42 gol egin ditu honez gero.

▼ Berandu bada ere, 2. mailako azken tokian dagoen KK Usainak 3 partidu jarraian irabaztea lortu du. Hala ere, *faroltxo gorria* izango da.

### Golegileak

**LEHEN MAILA**

1. F. Salinero (Ogizun).... 42
2. I. Pagaldai (Angiozar).. 26
3. I. Mujika (Tokieder) ... 23
4. B. Jimenez (Kris. P.)..... 22
5. Arriaran (Angiozar)...... 20

**BIGARREN MAILA**

1. Agirezabal (Kalim).... 57
2. Agirrebeña (Ozaeta)... 55
3. J. Izuskiza (Etxagi) ... 52
4. J. Larrañaga (Eri)...... 45
5. Agirrezabal (Ozaeta).. 40

# Eskubaloiko gizonezkoen senior taldea igoeraren bila

## *Larunbatean Arrasateren kontra Labegaraietan*

**Bergara K.E.ko** gizonezkoen eskubaloi talde nagusiak Arrasateren kontrako partidua jokatuko du larunbatean 17.45tan Kiroldegian, 2. Nazional Mailara igoera lortzeko beste urrats bat eman asmoz. 6 talde ari dira igoera fasean igoera ematen duten bi lehendabiziko postuak eskuratzeko helburuarekin eta momentuz bergararrak bigarrenak dira Gasteizeko Vitoria eta Gure Auzune taldeekin berdinduta, hirurak bosna punturekin. Lehendabiziko tokian, Bilboko Deusto taldea dago 6 punturekin, Barakaldoko Caja Bilbaok 3 puntu ditu eta, azken tokian, larunbatean bergararren kontra jokatuko duen Arrasate taldea 0 punturekin.



Josetxo Muniategi eta bere jokalariak asteazkeneko entrenamenduan.

Josetxo Muniategiren taldeak etxeko bi partiduak irabazi eta etxetik kanpo berdinketa bat lortu du, beste partidu bat galduz. Joan den astean Barakaldon 18na berdindu zuten bergararrek, *"Edu Iñarra atezainari esker, 7 penalti gelditu bait zituen"* Josetxoren hitzetan.

Igoera lortzeko etxeko partiduak irabazi eta kanpoan 2 edo 3 puntu lortzea ezinbestekoa dela uste du Josetxok. Etxeko partiduak guztiz erabakiorrak dira eta Josetxok esaten digunez, *"arbitroek ere etxeko taldeei laguntzen diete beti eta jokalariak ere asko motibatzen dira etxean jokatuta. Motibazio diferentea da; gu behintzat ezin gara kejatu. Beste herritan behintzat ez da horrenbeste joaten eta, esate baterako, larunbatean 20 bat pertsona besterik ez zeuden partidua ikusten, horietako batzuk bergararrak. Igoera lortzea? Nekeza baina aldi berean posible ikusten dut. Talde guztiak oso berdinduta gaude eta partidu gehienak gol bat edo bigatik erabakitzen dira"*.

# KIROL KARTELDEGIA

**FUTBOLA**
***Bergara-Baskonia***
Lehen Erregionala
Larunbata, 16.00, Ipintza.
***Bergara-Amara Berri***
Lehen mailako jubenilak
Larunbata, 17.45, Ipintza.
***Bergara-Urki***
2. mailako jubenilak
Igandea, 11, 30, Ipintza.
***Bergara-Idiazabal***
Lehen mailako infantilak
Igandea, 10.00, Ipintza.

**SASKIBALOIA**
***Bergara-Athl. San Sebastian***
Jubenil mutilak
Larunbata, 16.00.
***Aranzadi Ikastola-Elgoibar***
Infantil mutilak
Larunbata, 13.00.
Biak Kiroldegian.

**ESKUBALOIA**
***Bergara-Arrasate***
Senior mutilak
Larunbata 17.45
***Bergara-Aloña Mendi***
Larunbata 19.15
***Bergara Arrate Amaña***
Igandea, 12.15
Guztiak Kiroldegian.

**PALA TXAPELKETA**
**9.00:** Etxeberria eta Alberdi / Garitano eta Lete.
**10.00:** Lizarralde eta Zangitu / Azkarate anaiak.
**11.00:** Sanz eta Berroeta / Narbaiza eta Madariaga.
**12.00:** Arroyo eta Manzanedo / Otaño eta Martinez.
Igandean Osintxuko Frontoian.

**PELOTA**
- Afizionatuak
***Bergara-Elgoibar***
Asteazkena, 21.00,
Udal Pelotalekua.
Deba Arroa Txapelketa
- Profesionalak:
• Telletxea eta Azkarate / Goñi eta Oregi.
• Etxaniz eta Tolosa / Eugi eta Zezeaga.
• Astarloa / Badiola
Larunbata, 16.30,
Udal Pelotalekua

# MOTOR Hotsak

Iban Rodriguez auto gidariak gogor ekin dio Clio Kopa 16 balbula txapelketari. Albaceten eta Montmelón Jokatu dituen bi probetan lehen postua eskuratu du. Pablo Irizarrek, Citroen ZX kopan, berriz, ez zuen zorte onegirik izan joan zen igandean Jaraman jokatutako denboraldiko lehen proban. 7. postua eskuratu zuen Irizarrek. Martin Egañak, berriz, 5. postua lortu zuen Citroen AX Kopan, 2. postuan zihoanean pistatik irten zen arren.

Bestalde, Aitor Zabaletak, kotxea puskatu zuen Kanarietan jokatutako mendiko kotxe igoera batean. Zabaletak istripua izan zuen entrenamendu txandan helmuga pasatu ondoren.

## Kirol monitore eta entrenadoreentzat ikastaroa

Udal Kirol Zerbitzuak kirol monitore eta entrenadoreentzat ikastaroa antolatu du apirilaren 30ean, larunbata. Ikastaroa, goizeko 9etatik ordubata bitartean emango du Joseba Unsainek eta euskaraz izango da. Jorratuko den gaia "Aurrekiroletako jokoak" izango da. Parte hartu nahi duenak Udal Kirol Zerbitzuak Irizar Etxean duen bulegoan eman dezake izena datorren osteguna, hilak 28, baino lehen, edota 76 59 57 telefonora deituz. Matrikula doan.

## Emaitza onak lortu ditu Bergarako Gimnasia Erritmikoko taldeak

Larunbatean jokatu ziren Labegaraietako Kiroldegian Kirol Eskolarreko Gimnasia Erritmikoko sailkatze probak. Kadete mailan, Ezozi Artetxeberriak (argazkian) 4. postua eskuratu zuen banakako proban. Taldeka, berriz, Ainhoa Unamuno, Aiago Altuna, Yanire Albizu, Nerea Ayestaran, Nerea Dávila eta Nerea Osinalde 3. postuan sailkatu ziren eta azkenik, infantiletan, Nerea Mendizabalek irabazi zuen banakako proban Lorea Askasibarren aurretik. Guztiak datorren maiatzaren 14an Bergaran jokatuko diren finaletan izango dira. Bertan Euskadiko Txapelketarako txartela lortzeko aukera izango dute.



## KIROL EMAITZAK

**FUTBOLA**

• Prefente maila:
*Bergara 1-Zarautz 0*
• Lehen Erregionala:
*Intxaurrondo 1-Bergara 0*
• Lehen mailako jubenila:
*Groseko 1-Bergara 3*
• 2. mailako jubenila:
*Lasartearra 1-Bergara 0*
• Lehen mailako kadetea:
*Bergara 2-Elgoibar 0*
• 2. mailako kadetea:
*Lazkao 1-Bergara 1*
• Lehen mailako infantila
*Ilintxa 2-Bergara 1*

**ESKUBALOIA**

• Senior mutilak:
*Caja Bilbao 18-Bergara 18*
• Jubenil mutilak:
*Bergara 21-Usurbil 20*
• Kadete mutilak:
*Carmelo 20-Bergara 23*
• Kadete neskak:
*Aloña Mendi 4-Bergara 16*

**SASKIBALOIA**

• Jubenil mutilak:
*Bergara 70-Aldapeta 82*
• Infantil mutilak:
*Elgoibar 30-Aranzadi 47*

**PELOTA**

Herri Arteko Txapelketa
• Infantilak:
*Bergara 18-Billabona 13*
• Jubenilak:
*Bergara 22-Billabona 5*
• Seniorrak:
*Bergara 22-Billabona 3*

**PALA TXAPELKETA**

Osintxuko Pala Txapelketa
*• Lizarralde eta Zangitu 35*
*Garitano eta Lete 28*
*• Etxeberria eta Alberdi 30*
*Azkarate anaiak 35*

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41

IZADI
Santiveri
PILI GISASOLA
Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA




## *Soltero despedida bat orain dela 35-40 urte*

Lagun baten soltero-despedidako bazkaria Zabalarenean egin eta ondoren ateratako argazkiak duzue hau. Ez dugu jakin ahal izan ezkontzekoa zena zein zen. Orain 35-40 urteko argazkia duzue.

Goiko argazkian, **ezkerretik eskumara, aurre-aurrean:** Eliseo Gonzalez, Jesus Larrañaga, Bitorio Bilbao, Juan Imaz "Juanito Errenteri" (makurtuta), Jesus Egaña, Antonio Lopez, Martin Aranguren eta German Ibarra.

**Atzean:** Periko Aiastui, Anastasio Botero, Luis Garmendia, Tomas Lasa, Balentin Egaña, Ignacio Lopez, Antonio Ubierna, Bitoriano Larrañaga, Martin Arriaran eta Joxe Makazaga.

*Estepan Plazaola*
*Argazkia: Juan Imaz*

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI Altzariak
Era guztietako altzariak
Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

ITXASMENDI
Taberna
Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

EGUREN
GESTORIA
Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45

LAN ESKAINTZA
MAISU INDUSTRIALA (Soldaduzkatik libre)
BEHAR DA
☎ 78 90 81/3
Orduak: 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara. SARA andereñoa.

## ETXEBIZITZA

**Pisu amueblatua** salgai Zabalotegi 1ean. ☎ 76 32 27.

**Garajea** salgai Santa Marinan. ☎ 76 34 31.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

**Garajea** (bi plaza) salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 52 55.

Zubiaurren **pisua alokatzen da.** ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean.☎ 76 00 93.

**Pisua** salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauez).

**Pisua alokatzen** da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

**Pisua salgai** Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsaldez).

**Pisu** amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauez).

**Pisua** salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

**Etxea** salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

**Garajea salgai** Ibargarain. ☎ 76 36 69.

## DENETARIK

**Yamaha 600** motorra salgai. SS-4. 300.000 pzta. ☎ 76 49 43 / 17 64.

Kotxearen **irrati-kaseta** salgai (bi bafle). ☎ 76 37 29 (Martin).

**Remolke-denda** "Cabannon" salgai. ☎ 76 37 82.

**Edertze aretoa** traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

**Baserri** bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

**Peavey** anplia eta gitarra. 60.000 pta. ☎ 76 53 55.

**Motxila galdu** dut (barruan patinak). Topatu ezkero deitu. ☎ 76 39 96.

Paseozko Torrot **bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

**Onix** motorra (50 cc.) salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

**BX-16 TRS kotxea** salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

**Montesa Cota 335** (SS-AF, 175.000 pta.) eta **Vespa 200** (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

**Subijanaren** sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

**Kanpin denda** haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauez).

**Renault 21** TXE bat **salgai.** 1988koa. ☎ 763868.

Gas-Gas Enducross 250 **motorra**. ☎ 76 43 48.

60 l.ko **arrainontzia** salgai. Filtro eta berogailuarekin. ☎ 76 04 63 (gauez).

**Motxila** beltz bat eta **patinak** galdu zaizkit. ☎ 76 39 96.

**Butanozko** Mepamsa **estufa** salgai. ☎ 76 01 13.

**Game-boy** bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

## LANA

**Haurrak** eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

**Ingeles klaseak** ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

Haurrak/zaharrak **zaindu** eta **etxeko lanak** egiten ditut. ☎ 764094 (Isabel).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

**Ingeles Filolojian** lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxeko lanak** edota **haurrak zaindu**ko lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

Matematika eta Fisika **klaseak.** ☎ 762457 (Josune).

**Zaharrak** zainduko nituzke.☎ 76 24 62 (Ana).

## Hildakoak

***Xabier Gallastegi Agirre***
apirilak 17, 10 hilebete
***Martín García García***
apirilak 18, 60 urte

## Jaiotakoak

***Joxeba Azpiazu Larrañaga***
apirilak 7
***Mireia Igartua Imaz***
apirilak 14

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01


ZIRIPOT
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

ZUBIETA
elektragintza
✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)





AENOR
Produktu Zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

FAGOR

Sukalderako altzariak

# ADI ORAIN!!

APIRILEKO AZKEN EGUNETAN, % 40ko DESKONTUAK MODELO HAUETAN:
VERONA, CAPRI, LINEA, FIORE, NALIA eta OXFORD.
APROBETXA EZAZU HALTZARIk, FAGORen GARANTIAREKIN, ESKAINTZEN DIZUN AUKERA PAREGABE HAU.